

ESALDIAK BERRIDATZI EMANDAKO MENDERAGAILUA ERABILITA

1. Belauna lesionatuta du, baina arin dabil. – agatik
2. Asko zekien , baina isilik egoten zen beti. – ta ere
3. Asko janagatik, ez da erabat ase. –(e)n arren
4. Lana ederki ordaindu zidan, baina bazuen oraindik dirua. –agatik
5. Presaka ibiliagatik ere, beti berandu iristen zinen Institutura. Nahiz eta ... –(e)n
6. Ordu asko ikasten emanda ere, ez du ikasturtea gainditu. Ba...ere
7. Eguraldi ona dago, baina etxean geratu nahi dugu. – agatik ere
8. Atea zabalik bazegoen ere, ez ginen sartu. Arren
9. Jai eguna den arren, deus ez dugu ospatzeko. – agatik
10. Nahiz eta asko saiatu garen, ez dugu lasterketa hori irabazi. Ba...ere
11. Lan handia egiten dute, baina gutxi ordaintzen diete. Nahiz eta
12. Oihu eginda ere, ez die inork atea zabaldu. –(e)n arren

13.Atea jo zuten, baina ez zien inork entzun. - agatik

14.Nahiz eta festa horretara joan, ez ziren dibertitu. – (r)ik ere

15.Lagun asko ditugulakoan gaude, baina bakar-bakarrik sentitzen gara. – agatik

16.Gidatzeko karneta aspaldi aterata ere, ez daki kotxea eramaten. Nahiz eta ... –
(e)n

17.Behin eta berriz saiatu ziren, baina ezin izan zioten erretzeari utzi. –ta ere

18.Udaberria iritsi da, baina hotz egiten du. –(e)n arren